

EUSKAL TERMINOLOGIAREN EGOERAZ

Miren AZKARATE

EHU

I. SARRERA

Euskal terminologiaren egoeraz hitz egiten hasi aurretik, euskararen beraren egoeraz bi hitz esan nahi nituzke, ikuspegi zabalago horren barruan bakarrik uler baitaiteke terminologia-jardueraren egoera bere osotasunean.

Lau literatura-euskalkitako errealitatek abiatuz, 1968an hasi zuen euskarak bere batasun bidea, Ipar eta Hegoaldeko euskaldunentzat balioko duen estandarren eraikitzea, Euskaltzaindiaren gidaritzapean. Lehen urteetan morfologiaren funtsezko puntuak — deklinabidea, erakusleak, aditz laguntzailea...— batu ziren, baina 90 hamarkadara arte ez da sortu Hiztegi Batuko batzordea¹, horretarako beharrezkoa baitzen gaur ditugun bi corpus handiak eratzea: XVI mendetik 1970 arteko literatura-tradizioa jasotzen duen *Orotariko Euskal Hiztegia* eta XX mendeko euskara idatziaren lagin adierazgarria jasotzen duen *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*, urtero urtero eguneratzen dena. Euskalkietako hitz-altxorretik Hiztegi Batua eraikitzeak, Sarasolak (1979), *Euskal Hiztegi Arau-emailea*-ren proiektua aurkeztu zuenean argi utzi zuen bezala, irizpide orokorrak finkatzea eskatzen du eta haren ondasun lexikoa sistematizatzea. Horixe izan zen Hiztegi Batuko batzordearen (1994) lehen ahalegina. Eta irizpide horiek, nire iritziz, badure zer ikusirik terminologian egin behar dugun planifikazio lanean.

Kontuan hartzekoa den bigarren alderdia, euskararen ofizialtasuna da. Nahiz Euskal Herri osoan ez izan, Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza ofiziala da, espainolarekin batera, 1979az geroztik. Hiru urte geroago, 1982an, etorri zen Euskararen Normalizazio Legea. Honek esan nahi du batasuna egiteaz gain, oraintsu arte ia ezezagunak izan zaizkion eremuetarako gaitu behar izan dugula euskara: Administrazioarako, maila guztietako irakaskuntzarako, irрати eta telebistarako... Hau da, beste hitz batzuetan esanda, eremu urriko hizkuntza guztietan bezala², xedetzat hizkuntza-planifikazioa (Maurais (1987), Auger (1988)) duen terminologia prestatzea da gure lana.

Hirugarrenik, hizkuntza hedatzeak, hizkuntzaren beraren kalitatearen gaineko kezka ekarri du. Kontuan izanik, 80 hamarkadaren azken era arte ez dugula izan tradizio idatziaren corpus zabalik (eta hau ere oraindik ez dago guztion eskura), ulertzekoa da zenbat zalantza sortu diren puntu baten eta bestearen inguruan. Behin baino gehiagotan orain arte tradizioz ez zuten formak ere bultzatu ditugu, hobe beharrean. Honek guztiak, beste egoera batean dauden hizkuntzetan nekez ulertzen den kezka sortu du sintaxi-egituren

¹ Euskaltzaindiak bere lana aurrera eramateko batzordeak sortu zituen. Horiek dira gaiak aztertu eta batasunerako proposamenak euskaltzainen osoko bilkuran aurkezten dituztenak.

² Beste batzuek "hizkuntza gutxiagotu" terminoa erabiliko lukete.

eta lexikoaren zuzentasunaz, eta Euskaltzaindiak batasunerako ematen dituen arauak betetzeaz. Normatibizazio-giroan bizi gara, eta honek balio du terminologia zertan den ulertzeko ere.

Laugarrenik, nire iritziz, terminologian eragin izugarria izan du unibertsitateak. Bereziki 1973an Udako Euskal Unibertsitatea, orduetik hona udaro ikastaroak euskaraz eman dituen, eta 1980an Euskal Herriko Unibertsitatea (Euskal autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra) sortu izanak eta hasieratik irakasgai batzuk euskaraz emateak bultzada handia eman diote terminologiari.

Azkenik, euskal hizkuntzaren bi berezitasun ekarri nahi ditut hona, terminologia-jardueran eragina dutelako (batez ere kontuan izanik gure erreferentzia gertukoena frantsesa, espainola eta ingelesa ditugula):

- a) Izenondo erreferentzialik eza.- Hizkuntza erromaniko ez den heinean, euskarak ez du izenondo erreferentzialik, hau da, izenetatik abiatuz, '(oinarriak adierazten duen horri) buruzko' esanahia izango duten izenondoak sortzeko atzizkirik. Tradizioko jokabideari begiraturaz, eta izenondo erreferentzial baten atzean beti hitz elkartu bat dagoela defendatzen duten tesiak (Levy (1978)) berretsiaz, euskarak hitz elkartuetara (edo ezkerreko hedabideetara, izenlagunetara) jo du. Horrela, erdarazko 'izena + izenondo erreferentziala' egiturako sintagmaren ondoan, euskarak hitz elkartua erabili izan du, mugatzailea izenondo erreferentzialaren oinarrian dagoen izena izanik, edo bestela, 'izenlaguna + izena' egiturako sintagma (Ensunza (1989)):

behi - esne (leche - vaca) = vaca lechera
 esku - lan (mano - trabajo) = trabajo manual
 aho - literatura (boca - literatura) = literatura oral
 elizbarrutiko museo (diócesis de museo) = museo diocesano
 munduko txapelketa (mundo de campeonato) = campeonato mundial

Tradizioaren araberako jokabidea hobetsi zuen Euskaltzaindiak (1992) hitz elkartuen osarari buruzko araua eman zuenean:

"Baliabide indartsua da hitz-elkarketa, erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labur azaltzeko (...) Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal "izen +adjektibo erreferentzial" egiturak ordezkatzeko: *esku-lan (trabajo manual/travail manuel)*, *aho-literatura (literatura oral/littérature orale)*, *ekonomi teoria (teoría económica/théorie économique)*, etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu".

Baina kontuan izan behar da hitz elkartua edo 'izenlaguna+ izena' egitura erabiltzeko aukerak badituela bere mugak, gardentasuna izanik nagusia; oinarrian dagoen izenaren eta hortik sortutako izenondo erreferentzialaren artean erlazio semantiko gardenik ez badago, nekez erabil dezakegu hitz elkartuen bidea. Esaterako, *estado normal* esateko ezinezkoa da *arau egoera* ematea euskaraz, *normal* izenondoa adiera honetan gehiegi urrundu baita "relativo, referente a la norma" esanahitik. Bi izenondo erreferentzial edo gehiago koordinaturik dituzten erdal sintagmen ordainetan ere mailegua hartzea komenigarriagozat jotzen du batek baino gehiagok: *teoría político-económica* adierazteko, *teoría político-ekonomikoa* egokiago ikusten dute, *política eta ekonomi teoria* baino. Nolanahi ere, bada jendea Euskaltzaindiaren gomendioari estuegi iritzi diona (Loinaz (1995)), izenondo erreferentzialentzat leku zabalagoa eskatuz.

Erromanikoak ez diren inguruko hizkuntzen artean, ingelesak eta alemanak ez dute jokabide bera hartu. Ingelesak ia izenondo erreferentzial guztiak hartzen dituen bitartean, alemanak gehiagotzat jotzen du hitz elkartuetara, edo, bi bideak zabaltzen ditu, 'izena+izenondo erreferentziala' sintagmaren ondoan 'izena+izena' egitura ere emanaz.

Kontu honetan, beste ia guztietan bezala, Villasantek (1959) esan bezala, funtsezkoa euskara gai guztietarako erabiltzea da. Erabilera horrek berak argitu eta finkatuko du kasuan-kasuan izenondo erreferentzialdun sintagma hartzen dugun ala hitz elkartua.

- b) Euskararen bigarren ezaugarria ia aurrizkirik ez izatea da. Mitxelenak (1968) Arantzazuko Biltzarrean aurkezturiko txostenean azpimarratu zuen hutsune hori:

"Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (*des-* eta horren antzekoren bat edo beste kenduz gero) aurrizkirik, latinezko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-*, *dis-*, *ex-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakenik. Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake gerora gabe nola joka".

Aurrizki-urritasuna, Villasantek (1974) ere azpimarratu du harrezkero. Hain zuzen ere, Lexikologia-irizpideen Finkapenerako batzordeak, erdal aurrizkiek nolako ordainak izan ditzaketen euskaraz aztertzen jardun zuen bere plangintzaren azken urrats bezala. Ordain horiek zehatz-mehatz aurkeztzen hasteko unea ez bada ere, argi dago izenak eta izenondoak sortzen dituzten aurrizkiek badituztela euskal ordainak (gehienetan, ezkerreko erdal aurrizkiaren orde, euskal ordaina oinarriaren eskuinean kokatzen da). Aditzetan ditugu zailtasunak, hor ez baitago tradiziorik: *prever*, *convivir* edo *sobrevivir*, euskaraz perifrasi bidez eman izan ditugu: *alde aurretik ikusi*, *elkarrekin bizi* edo *bizirik iraut/bizirik atera*, hurrenez hurren. Badakit berez hau orotariko lexikoaren auzia dela, ez berez terminologiarena. Baina hortik eratorritako izenak gerta daitezke termino. Adibidez, administrazioan nola esan behar duguz *certificado de convivencia* edo *superviviente* (aseguru-poliza batean)? Hasteko, inguruko hizkuntzetan begiratu beharko da; baina, nolana ere, horien antzeko arazoak izango ditugu.

II. TERMINOLOGIA-JARDUERAREN EZAUGARRIAK EUSKARAREN KASUAN

1. Terminologia-lanaren lehentasunak eta ezaugarriak

Sarreran esan bezala, xedetzat itzulpena duen eta xedetzat hizkuntza-plangintza duen terminologiaren artean (Maurais (1987), Auger (1988)) kokatzen da, nik uste, gure alor horretako lana. Gure zer egin ez da kontzeptu berriei izenak ematea, baizik, beste hizkuntzaren batean emandako izenari euskaraz ordaina aurkitzea, euskara edozein alorretan erabili ahal izateko. Bestalde, oro har mundu osoan gertatzen den bezala, terminologia ez da zientzia eta teknikaren eremuetara bakarrik mugatzen, jakintzaren edozein alor besarkatzen du.

Bestalde, ohiko jokamoldea, hiztegi berezituak, liburu zientifiko, tekniko edo giza eta gizarte-zientzien eremukoak, edo beste zeinahi testu hustuz eta horietako terminoak bilduz osatzea da. Gure artean, ordea, beharrezkotzat jo da lehenik hiztegi berezituak osatzea, gero, horko terminoak erabiliz, testuak idatzi edo (unibertsitateko) eskolak euskaraz eman ahal izateko. Lehenik hiztegiak osatu eta ondoren testuak idazteko jokabidea, gerra ondoren ikus daiteke dagoeneko. Andoni Urrestarazuk 1955ean Gramatika bat euskaraz egin ahal izateko edozein gramatikaririk behar duen terminologia gomenda zezala eskatu zion Euskaltzaindiari. Eta Agirretzek (1963), hiztegi osoa lehenbailehen osa zezala:

"Horregatik euskal hizlari guztien izenean nik Euskaltzaindiari eskari hauxe egiten diot: lehenbailehen izan dezagula gaurko kulturagai guztia euskeraz esaten lagunduko digun hiztegi bat. Lehendabizitik hiztegi osoa izango ez bada ere, beharrezkoen eta gaurkoen diren kontzeptuak esaten lagunduko digun hiztegi bat".

Eta jakina, nire iritziz, horretarako euskaraz kanpotik hitz pila izugarria hartu beharra dago. Baina ze hitz hartu, nola hartu eta nola hitz horietako bakoitzari

euskaratasun egokia eman jakiteko, maixuak behar ditugu eta maixu horiek Euskaltzaindiak izango ahal ditu; lan honi benetan eta lehenbailehen erantzungo diotenak, alegia" (449).

Villasanteren (1956) hitzetan ere, euskara biziberritzeko saioan, terminologiaren garrantzia azpimarratzen duenean, lehenik hutsean terminoak sortu beharra antzematen da; horren ondotik etorriko dira entziklopediak eta testuak euskaraz idatziak:

"Ba ote dugu gure euskara, gauza horiek, edozein gizonek gaur behar-beharreko dituenak, tajuz eta eraz espresatzeko egokitua? Eta ez baldin badugu, zertan ari gara euskaldunok? Ez al da hau egitekorik lehenena? Eta gauza horiek euskaraz ipintzeko, zein dugu oztopo bakarra? Lehen aipatu duguna: terminologiaren auzi hori, korapilo hori, askatu gabe edukitzea. Eta hola gauden bitartean, nahiz eta herri-hitzak eta esaerak eta ipuiak jasotzen ibili, nahiz eta beste lan ederrik asko egin, euskara beti izango da ezjakinen hizkuntza. Eskola eta jakintza beti joango dira erderarekin elkartuak, eta Kondaira lekuko, bi hizkuntza nor-gehiagoka jarri diren guztietan, jakintza eta kultura noren alde egon diren, harena izan da betiere garaipena"³ (260).

Beraz, terminologia planifikatu baten beharra aspaldidanik antzematen da gure artean.

Gure terminologia-jarduera marko horretan kokaturik, Hiztegi Batuko batzordeak (1994) orotariko hiztegirako, lexiko arrunterako, ezarritako irizpide-sortaren antzekoa huts ematen dut nik terminologia-auzietan. Aldez edo moldez horrelako zer eginetan jardun behar dutenei, guztiek onartzen dituzten irizpide orokorrak gidari izateak —lexiko arruntaren batasunerako ezarri direnekin koherente izan beharko luketenak— lana erraztuko liekeela uste dut. Honako auziak jaso beharko lituzkete irizpide horiek, besteak beste:

- a) Mailegukiko jokabidea.- Alor jakin batean munduaren alde batean eta bestean diharduten zientzilariek elkar ulertzea errazten du terminologiak. Maileguak hartzeko erraztasun handiena eskaintzen duen alorra da bada. Eta hala ere, maileguaren eta neologismoaren (geuk sorturiko hitz berriaren) artean ibili gara azken mendeetan.

Hiztegitintzan lan erraldoia egin zuen Larramendik, esaterako, ahalegin berezia egin zuen maileguetatik ihesi, euskal ordainak emateko erdal sarrera bakoitzari⁴, baita terminologia-auzietan ere: latinetik hartutako maileguak, edo inguruko hizkuntzek latineko erroetan oinarrituz sortuak, baztertuz, Larramendik nahiago izan zuen euskal ordainak ematea; grekera eredu hartuz, eta hizkuntza horrek egin bezala, euskal erroak elkartuz *Jaincoquindea*, *Izarquindea* edo *Ceruquindea* proposatu zituen *Teologia*, *Astronologia* etab.en orde.

Gero ere, mende-hasieran, eta gerra ondorengo lehen urteetan, garbizaletasun-giroa zen nagusi, mailegu guztiak, zaharrenak eta tradizio osokoak ere euskaratik baztertu eta horien orde euskal erroez osaturiko hitzak ezarri nahi izan ziren⁵. Giro horretan sortuak ditugu gure tradizio urria osatzen duten testu teknikoak, edo administraziokoak. Giro beraren ume da A. Urrestarazu "Umandi"k, argitaratu gabe, baina ia osatua utzi zuen Asmo Hiztegia (*lutelestia* 'geografia', *izarritzia* 'astronomia', *ostagitzia* 'meteorologia', *ludiztia* 'geologia', etab.).

³ Testua batasunaren aurrekoa den arren, aipua euskara batuko arauen arabera moldatu dut.

⁴ Ikus Azkarate (1992)

⁵ Garai hartako hiztegi-gaietako jokamoldeaz Pagola (1988) ikus daiteke.

Hala ere, maileguekin askoz jokabide malguagoa izan dutenak ere badira. Euskaltzainen artean, esaterako, Altubek (1920a, 1920b, 1933, 1936), batez ere sintaxi-lanengatik ezagutzen dugun arren lexikoaz ere luze-zabal idatzi zuenak, behin baino gehiagotan ukitu zuen maileguen auzia. Hiru irizpideren arabera jardungo beharko genuke, haren ustez, terminologian:

— zehaztasuna (terminoek nahitaez eskatzen dutena, eguneroko hitzen anbiguotasuna baztertuz)

— benetako erabilera da kontuan hartu behar dena, jendeak zer esaten duen:

"gure errijetako jostun edo *modistak* lau euskaltzaindik garbitu leikezan baiño erderatiko hitz geijago ezarten deutsee egunero gure emakumeen euskeriari.

Eta orretarikoxea da izkera-bizitziaren izate, arnasa eta aixea; eta orretariko aixeetatik landaz, kanpo, ezta bizi munduon hizkerarik.

Eta bardin gertatu da ta gertatzen da jangai, jantzigai, jolasgai eta beste gai orotako itzai buruz ere (...)

Ezteijogun guk ere geure izkera oneri bestek eureneri iminten ezteutsen eragozpenik imini; eztaiguzan geure iztegirako ateok beste izkereenok baiño estuago, itxijago imini; ezteijogun geure izkera onen birijai beste izkera orok aoa betez artzen daben arnasia ukatu.

Eta iztegi-aberaspide ori iñok ez bestean guk euskaldunok ¿zer dala-ta ezetsi nai izan oi-dogu? Uste oker bat dogu euskaldunok iñok baiño barrurago sartuta. Geure euskera bakarti onek, erderatiko itzez jantzi ezkerero, beronen nortasuna, norberatasuna galtzen dabela uste izan oi-dogu. Eta au ezta egija; ezteuskue beintzat ori irakasten gaur-eguneko izkuntzalarijak" (1920b: 29-30).

1922an Eusko Ikaskuntzak Gernikan eginiko biltzarrean irakurri zuen hitzaldian, "Euskal Itz Barrijak. Eurok eraltzeko, erderak zatara lagun egin bear deuskuen" izenekoan (nik Villasanterengandik (1963) jaso dut), iritzi bera azaltzen du⁶:

"*Bigarren Klasetako hizkera berarizkoak*. Atzeritik orain agertzen zaizkigun makina, erremintta, jostailu, soieko eta komertziotako nahiz hartaz kanpoko beste tresna eta arazo guztiei dagozkionak.

Gauza hauek mundu guztiko hizkeretan egon ohi dira erderatiko izenez jositakoak, eta ez dago horren kontra inundik inora ezer egiterik. Atzeritar gauza horiek herritik herrira igaro ohi dira eta bakoitza bere jatorri herritik dakarren izenaz izendatu ohi da. Azkenengo bitarteko edo dendariak izan horretxekin hartu eta horrelaxe ezagutu arazi eta saldu ere egiten dituzte gauzok. Gauza ezagutzen dijoan neurri berean, jatorritiko arrotz izena ere zabaltzen eta sustraitzen doa herririk herri; eta hitzok behin sustraituz gero, joan zen garbiak jartzeko era eta ordua. Beharbada hizkelzain eta idazle garbizaleak dira, sarri horrelako gauza berri eta beren arrotz izenak ezagutzera beranduen heltzen direnak. Ameskeria barregarria litzateke, berriz, atzerri-hitzok sustrai ez daitetzen, harako muga-ate edo aduana antzeko gauza bat imini nahi izatea. Haizeari ateak imintzea bezalatsu" (Villasante 1963:306).

— nazioartekotasuna. Europako hizkuntza gehienek jokabidea jarraitu beharko genuke, espainolak, frantsesak, italierak, ingelesak edo alemanak hartu dituen hitzak guk ere hartuaz, beti ere euskarara egokituz (1933a). Hala ere, zientzia hitzek eskain dezakete eremu egokia neologismoak sortzeko ("sor ditzagun hitz berriak kontzeptu berriak izendatzeko"), edota hitz zaharkituak biziberritzeko (1936). Eta, orotariko hiztegirako defendatzen duenaren ildotik, terminologian ere, maileguak eta hitz berriak, biek izan dezakete beren lekua, esanahiak bereiziz:

⁶ Euskara batura moldaturiko aipua.

"Así admitidas en euskera las voces *Matematika, Aritmetika* (sería hasta ridículo rechazarlas por escrúpulos puristas) el neologismo *Zenbakizti* podría significar "Contabilidad", *Zenbakiztilari* "Contable" o "Contador", etc." (1933: 265, oinoharra).

1922ko hitzaldian berriro jaso zuen ideia bera. Goi-jakintzako hitzetan du hutsunerik handiena euskarak. Gainera, maila honetako terminoak arlo horretako mundu osoko espezialistek erabiltzen dituztenez, nahiko "batuak" egoten dira. Garai batean, latina nagusi zenean, hizkuntza horrek ematen zuen batasuna. Gero, latin eta grekoko sustraiekin eraturiko hiztegia nagusitu da jakintza-arlo askotan eta horiek dira Europako hizkuntzek hartu dituztenak. Horrela jokatu du ingelesak ere, nahiz bideak izan bere baliabideetatik hitz berriak sortzeko:

"Europa alderdi onetan euskaldunok geu bakarrik batasun horretatik kanpora gelditzea, ez tirudi zentzuzko ta onuratsu litzakigunik. Bestetara egin bear geunkeala deritxogu: geuretzakotu guk ere, jakintza-hiztegi-jori, hitzai euskera-
-antzaemoteko gorago aittatu dittugun aldakuntza-legeak bear danean ezarririk"⁷.

Villasantek (1956) ere, gerra ondoren, lexiko-kontuez eta terminologiaz ere arduratu zenak, nazioartekoak direnean maileguak hartzea defendatu zuen, baina euskal ordainei bidea itxi gabe:

Sartaldeko herri eta hizkuntza guztietan zabaldurik eta onarturik dauden hitzak, guk ezetsi nahi izan ditugu. *Técnica, máquina, política, religión*: honelako hitzak nongo hizkuntzan (Okzidenteko kultur esferan bizi direnetan behintzat) ez daude hartuak, eta ez hartzeaz zer egiten dugu, gure burua hil baizik? (265).

Goragoko kulturak dakarzkian kontzeptuak, horiek guganatu behar ditugu. Kontzeptu horiek, kanpotik ekarritako hitzekin edo euskal sustraizkoekin behar ote diren adierazi, hori beste auzi bat da. Beharbada batzuetan bide bat, eta besteetan beste bat jarraitzea izango da onena (267).

Giro horretan, erabakigarritzat jo daiteke 1959ko Euskaltzaindiaren euskal hitzei buruzko adierazpena, nazioarteko maileguak onartzearen aldekoa:

"Berebat, hizkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko hitzak ontzat hartzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro ta abar" (215).

Lexiko arruntarekin egin bezala, adierazpenaren atal honekin, gerra aurreko eta ondorengo joera mugatu eta beste bide batzuk urratzea zilegi dela ulertzen dute euskalgintzan dabiltzan lagun askok: *lutelesti, edesti, zenbakizti* etab.en ondoan (edo horien orde) *historia, geografia, matematika...* bultzatuko dira.

1963an Arantzazun Euskaltzaleen Biltzarrak bilera berezia egin zuen, gai hau eztabaidatzeko: "Euskal hiztegia eta gaur eguneko beharrak", eta horren barruan, "Kultura hitzak euskaraz". Bilera horretan, Oskillasok (1963) latin eta grekoko erroez osatutako kultura-hitzak geureganatzeko ematen dituen arrazoiak Altubek bere garaian aipatzen zituenak berak direla esan daiteke:

"Ehun milatik gora dira hizkuntz jakitun guztien kultur hitzak eta urtero jaiotzen dira ehundik gora guttienez. Ezin dugu guk egin besterik, sortzen diren bezala geureganatzea baino, iturrira joan eta ezertarako aldakuntzarik sartu gabe, denok berdín egiten ditugunak baizik (...) Batzuetan alemanek euren hizkuntzako sustraiekin egindako hitz batekin esaten dute besteek latinetik hartzen dutena (...)

⁷ S. Altube (1922): "Euskal Itz Barrijak" (L. Villasanteren lanetik hartua, 1963: 308)

Baina batzuetan alemanek hau egiten badute, eragozpen bat baino ez da, asko komeni baita hitz jakitun guztiak mundu guztian berdinak izatea... Kontuz garbizaleok, alemanak handiak dira jakintza arazoetan eta eurei barkatzen zainea ez litzauguke barkatuko guri ta. Gainera eurek ere ezin dute egin hau beti, eta beti ez egiteko, hobe ez egitea inoiz" (384-5).

Orain arte nazioarteko maileguak hartzearen aldeko iritziak ikusi ditugun arren, bestelakoak ere, Larramendiren jokabidea hobesten zutenak, ez ziren falta. Zatarainek (1968) Arantzazun, ahal den guztietan euskal hitza sortu beharko genukeela aldarrikatu zuen, "nazioartekotasuna" askotan uste baino hedadura txikiagokoa izaten baita, behin baino gehiagotan, gaztelaniaz eta frantsesez besterik ez dakiten batzuen irudipena besterik ez. Dioena hala dela erakusteko, frantsesa, italiara, ingelesa, alemana, gaztelania, daniera eta suediera hartzen ditu eta terminozerranda bat hizkuntza bakoitzean nola den aztertzen du. Gainera badira hizkuntzak, alemana eta daniera, esaterako, grekerazko terminoa, eta berek sortua, biak erabiltzen dituztenak. Gakoa, frantsesa, ingelesa eta gaztelera baino haratago begiratzean datza; hor frogatuko dugu termino jakin bat benetan nazioartekoa den ala ez.

Urte haietan hiztegi kontuetan nolako jokabidea zen zuzena, garbizalea ala maileguei atea zabalik uzten ziena, beste foro batzuetan ere eztabaidatu zen urte horietan, 50 hamarkadan eta 60ko hamarkadaren hasieran. Foro horietako bat *Jakin* aldizkaria izan zen⁸.

Eta, nola ez, erdibideko jarrearen aldeko ahotsak ere entzun ziren: nazioartekoa den hitz berezitu edo terminoaren ondoan, euskal hitza sortzen den kasuetan, bestearen ondoan ipini eta gorde beharko genukeela defendatzen duen iritzia, adibidez (Barandiaran 1963):

"beste herrietan erabiltzen diren neurrian, grekeratik jasota ta abar, ez litzateke zer esanik euskaraz ere erabili behar genituzkeela. Baina euskal hitzak ere jatorki asmatuko balira, horiek ere hiztegiak batera ekarri behar litzuzke" (374).

Irizpide orokorrek markatu beharko lukete, beraz, maileguak noiz hartu. Frantsesez eta espainolez berdin esatea nahikoa al da, ala urrunago begiratu behar da? Frantsesa, espainola eta ingelesa batera doazenean mailegua hautatuko da? Ala alemana ere kontuan hartu behar dugu? Edo aukera oraindik gehiago zabaldu (daniera, suediera, hizkuntza eslaboak...). Izan ere, hizkuntza batzuek, bereziki ingelesak, errazago baliatzen ditu latineko eta grekoko erroak; alemanak, ostera, bide hori baztertu gabe, errazago jotzen du berariazko ordainak sortzera. Zein bide hautatu? Bai Altube (1922) eta bai Villasante (1963), ingelesaren bidea eredu hartzearen aldeko ageri dira, eta ez alemanarena. Lau arrazoi ematen ditu Altubek bere aukeraren zergatia azaltzeko: euskaldunok gutxi gara; oso zaila, ezinezkoa izango zaigu, jakintzak asmatzen dituen gauza berri guztiei "euskal izena" jartzea; inguruan, bestela jokatzeko duten hizkuntzak ditugu; eta, azkenik, bakar bide horrekin jakintza-lana asko zailtzen da. Altonagaren (1994) iritziz ere:

"Baina ez soilik terminologian: planeta osoa bera ere "auzo global" bilakatu zaigu. Ikuspegi horretatik, gure tradizio motz eta bikoitz horretan (txiki-ikusina versus mikroskopa), bigarren ereduari, nire ustez, duena baino leku gehiago opetsi beharko genioke. Izan ere, ezin gaitezke hizkuntza moderno baten prestaketan aritu, "noranahikoa" gura ei dugularik, horretarako baliabide teoriko zaharkituak (eta sarritan estereotipatuak) maneiatur. Eredu zientifiko-teknikoetan erabilezin suertatuko da guztiz, mendebaldeko korrante nagusiaren kontra zirriborratutako teknolekto garo-usainduna".

⁸ Ikus honetaz J. Azurmendi (1963): "*Jakin*: euskal kulturaren bideak lantzen" *Euskera* VIII-IX, 336-371

Iritzi hau al da terminologiaren plangintza gidatuko duena? Eta, honen arabera, ba al da lekurik *haragi-jale*, *belar-jale* edo *oro-jale* bezalakoentzat? Oso adierazgarriak dira, alde honetatik 1989an administraziozko hizkeraz eta terminologiaz egin ziren jardunaldietako eztabaidak.

Bada, ordea, beste auzi bat ere ebatzi beharrekoa: maileguak hartzekotan, zein itxuratan hartu, Leizarragaren bideari jarraitu kultura hitzak inolako aldaketarik gabe hartuaz, ala Axularrenari, kultura hitzok euskararen senaren arabera aldatuz. Bide-gurutze horretan, Txillardegi (1959) Axularren bidetik jotzearen aldeko ageri da. Eta horretarako Euskaltzaindiari eskatzen dio irizpideak eman ditzala. Mitxelena ere (1968) iritzi berekoa da:

"Kultura-gaietan hartzaile —bestearen zordun, beraz— geranez gero, bidezko da, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea (...)

Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik aurrera ere. Hitz horien itxuraz, ordez, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek, gaztelaniaren arabera.

Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdira behintzat, *y*, *kh*, *th* eta gisa horretako idazkerak baztertuaz" (215).

Baina beste bidea, hitzak bere horretan gordetzearena, defendatu dutenak ere izan dira Euskaltzaindian. Horien artean, Krutwig hasieratik azaldu da kultura hitzak jatorrizko idazkeran ematearen alde⁹. Euskara Batuak bere bidea egin ondoren, eta Euskaltzaindia maileguak nola egokitu aztertzen ari zela, hasierako jarrera berretsi zuen 1982an, erraztasunarengatik, kulturahitzak, ingelesez, frantsesez edo alemanez duten ortografian hartzearen aldeko da. Beraz, Krutwigen iritiz, euskaraz kultura hitzak beren jatorrizko forman idatzi beharko genituzke, nazioartekoena horixe izaten da eta.

Axularren bidea da nagusitu dena, Euskaltzaindiak maileguak euskarara egokitzeke 1986an eman zituen arauetan ikus daitekeen bezala.

- b) Izenondo erreferentzialekin nola jokatu.- Sarreran aipatu ditudan ezaugarriak, Euskaltzaindiaren gomendioa eta beste zenbait iritzi kontuan izanda, *sistema hormonal* ala *hormona-sistema*, *gaixotasun infektioso* ala *infekzio gaixotasuna* bultzatu behar den erabakitzen lagunduko liguken irizpide orokorra, izenondo erreferentziala noiz hartu ahalik eta zehazkien erakutsiko lukeena.
- c) Tradizioko bideen eta bide berrian arteko tirabira.- Batez ere erdal aurrizkien ordain gisa hedatuz doazen egitura berriak noiz gerta daitezkeen onargarri argituko duten irizpideak.

Azken batean, euskararen kasuan, terminologiaren plangintza, irizpide nagusietan, orotariko hiztegi batuaren arabeko parametroekin egin beharko genuke. Eta, alde honetatik, urrun gabilta Cabrék (1992) aipatzen duenetik: forma zuzenaren gaineko kezka gaindituz, jarrera pragmatikoagora pasatzetik, alegia.

2. Terminologiagileak

Gure artean, beste hainbat lekutan bezala, behin baino gehiagotan eztabaidatu da nori dagokion terminologiagintza: Euskaltzaindiari, hiztegi-gileei, filologoei, ala alor bakoitzeko adituei. Puntu honetan, terminologiagintzaz nor arduratu den aztertzean, bi fase bereiziko

⁹ Ikus Euskaltzaindiaren batzar-agiriak 1949-1964, *Euskera* 1937-1953, bereziki 1951.IV.29koa.

nituzke: 1980 artekoa lehena, euskarak ofizialtasuna erdietsi arteko epea, eta handik gaur artekoa bigarrena.

a. 1980 artekoa (euskararen ofizialtasunaren aurreko fasea)

Garai honetan, erakunde ofizialik ezean, ekimen pribatua da euskararekin zer ikusia duten proiektuak bultzatzen dituen. Eta euskararen batasun eta sustatze-giroan, terminologiaren arduratzen diren lehen elkarteak ere sortzen dira.

Batetik, Euskaltzaindiaren lana dugu, terminologiagintzan jardun behar duen ala ez, modu batera edo bestera, ia hasieratik eztabaidatu duena¹⁰ Eta galdera honi, batzuek modu bateko erantzuna eman diote —Euskaltzaindiak jardun behar du terminologia-lanetan—, eta beste batzuek bestelakoa —Euskaltzaindiari ez dagokio terminoak sortu eta proposatzea—. Berez, hasieratik ageri dira Euskaltzaindiko bilera-aktetan terminoerik buruzko erabakiak (Zalbide 1991): 1922ko apirilaren 27an erabaki zen erderazko *gono* esateko, euskaraz *ertz* erabili behar zela, eta *egal*, berriz, erdal *edro*-ren orde. Baina laster ageri dira iritzi kontrajarriak; 1930eko *Euskeran* (XI,1:49) jasotzen den eskariaren aurrean (euskal idazleek Euskaltzaindiari eskatzen diote maileguren ordain txukunak sor ditzala), eta Azkueren proposamena ikusirik (horretarako batzorde bat sortu eta lanean has dadila), euskaltzain gehienek ondo irizten dioten arren, Urkijo eta Lakonbe kontra agertu ziren. Bi euskaltzain hauen ustez, Euskaltzaindiak ez du izan behar hitz berrien sortzaile, idazleek eta herriak sotu behar dituzte hitz berriak, eta piztuarazi.

Iritzi desberdintasun hori eten gabe ageri da gerra ondoren ere: nahitaezko diren hitz berezituak, terminoak, sortzeko eskariak batetik, eta lan hori besteri dagokiola uste duten euskaltzainen adierazpenak bestetik (gogoan izan lehenago aipatu ditudan Urrestarazu eta Agirretxeren eskariak). Bigarren sailekoen artean, Villasantek (1956) argi asko adierazten du auzia zertan den, luze samarra izan arren, osorik aipatu nahi dudana pasarte honetan:

"Lehen ere izan zen eztabaida Euskaltzaindiak hitz berrien sortzaile izan behar duen ala ez, eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gailen (*Euskeran* 1930, 49 orr.). Hauen aburuz, idazleek behar dute bidea urratu. Gaiak euskaraz erabiliz sortuko du batek hitz aukerako bat, beste batek beste bat, eta hala, poliki-poliki, sortutako hitzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu eta finkatu dadin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lehenago, hau da, zabaldurik eta onarturik daudenean, hitzok bere egingo ditu, eta hizkuntzan sartuko. Bide ziurra eta zuhurra, noski, baino luzea, luzeegia behar bada. Behintzat orainarte idazle gutxi azaldu zaigu, bidea urratu nahi duenik. Eta halaxe gaude: idazleak Euskaltzaindiaren zain, eta Euskaltzaindia idazleei begira".

Urrestarazuk berak ere urte batzuk lehenagoko jarrera aldatuz, (1963: 405), idazle eta irakasleak hartzen ditu terminologia-kontuetan erabakitzaile.

Beste batzuek, Euskaltzaindiari erdibideko zerbait eskatzen diote: inork sortutako hitz berezituaren aurrean, epaile lana egin dezala, nolabait. Horrela, Mendigurenek (1976), irakaskuntzako liburuetan lexiko auzietan nolako desberdintasunak dauden ikusirik, eskari bat egiten dio Euskaltzaindiari: azken aldiko liburu guztiak aztertu, desberdintasunen zerrenda bat eratu, eta ondo aztertu ondoren, forma egokienak proposa eta gomenda ditzala, liburgintzan diharduten talde desberdinen eskuetan ipiniaz proposamenok.

Hurrengo urtean, (Mendiguren (1977)), hitz berriak sortzea guztion zer egina dela aitorturik ere, Euskaltzaindiaren eginkizuntzat ditu ondorengo hauek:

- a) testugintzan ari direnekin, argitaletxeekin, etab. harremanetan jarri eta terminologia bilketa eredu bat proposatu.

¹⁰ Auzi honetaz ikus Zalbide (1991)

- b) Ordurarteko neologismo eta terminologiaren biltze sistematiko bat egin ondoren, galbahetu eta forma egokiak edo gomendagarrien proposamena egin. Agian horretarako hizkuntzalariz eta zientzia alor desberdinetako jende adituz osoturiko kontseiluren bat eratuaz.
- c) Gomendatzen duen hitz zerrenda testuinguru egokitan eta oharrez horniturik argitaratu.

Euskaltzaindiak berak ere bitariko jarrera darama urte horietan. Villasantek (1977), Euskaltzaindiaren hurrengo bi urteetako eginkizunak aztertzean, argi eta garbi adierazten du Euskaltzaindiak ezin duela berak bakarrik Hiztegi Espezializatuen itsaso zabala inguratu. "Bestelako taldeen lana bultzatu behar du, eta, ahal den neurrian, denen artean koordinazio, batasun eta bat-etortzea bilatu" (231). Hala ere, Etxegintza batzordea, lanean ari zen, arkitekto, ingeniari eta apareilariz osatua, bai eta Matematika batzordea ere. Urte horietakoak dira *Filateli Hiztegia* (1973), *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia* (1975), *Matematika Hiztegia* (1978) edo *Arkitektur Hiztegia* (1979).

Aldi berean, hiru elkarte sortu ziren terminologiagintzan benetako eragina izan dutenak:

- Elhuyar elkarte, 1972an sortua, zientzia-eremuan euskara garatu eta bultzatzea xedetzat zuena. Berehala hasi zen *Elhuyar* aldizkaria argitaratzen, zientzia eta teknika gaiak lantzen dituena, unibertsitate munduari zuzendua. Berrikita *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* dibulgazio aldizkaria ere sortu dute, osasuna, biologia, informatika, ekologia... artikuluek osatua. Testuak idatziz garatu dute, beraz, terminologia.
- Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), euskal unibertsitatearen sorrera bultzatu nahi zuena ere urte berean sortu zen. 25 urtean zehar antolatu dituen udako ikastaroetan euskaraz eman diren ikastaroek alor berezietako terminologia garatzea ekarri du berarekin. Horretaz gain, unibertsitateko testu-liburuak ere argitaratzen ditu, bai eta *Uztaro*, giza eta gizarte zientzietako gaiak jorratzen dituen aldizkaria ere.
- UZEI, 1977an sortua, hiztegi berezituak prestatzeaz arduratu da, eta horretarako langai baliotsua aurkitu du urte batzuk lehenago sortutako elkarten emaitzan. Hogeita hamar hiztegi berezitu baditu argitaratuak, eremu bakoitzeko adituak bilduz, hala ere, hiztegi hauek egiteko, ez dago askotan oinarri izango den testurik, hango terminoak bildu eta glosario modura argitaratzeko aukera emango duenik. Irakasleek (eta beste lanbide batzuetakoek ere) hiztegi berezitzen beharra somatzen dute, horien laguntzarekin testuak sortu edo bakoitza bere lanbidean euskaraz jardun ahal izateko. Alderantzizko bidea egiten da, beraz: adituak bildu, proposamenak egin, terminologia-zerrendak argitaratu eta, azkenik, termino horiek testuetan erabili. 1986an EUSKALTERM terminologia zentroa sortu zuen eta handik bi urtera *Berba* aldizkaria argitaratzen hasi zen, terminologiaren munduan gertatzen denaren berri-papera izateaz gain, euskal terminologiaren arazorik korapilatsuenak eztabaidatzeko gunea¹¹.

b. 1980 -

Euskal Autonomia Erkidegoaren sorrerarekin eta euskarak ofizialtasuna erdiestearekin batera, erakundeak ere sortzen dira terminologia-plangintzaz arduratzen direnak administrazioaren munduan eta irakaskuntza ez-unibertsitarioan. Euskaltzaindiak, ostera, alde batera uzten du terminologia-lana. 1981eko abenduaren 29an, Hiztegiagintzaz eginiko adierazpenean, Hiztegi orokorra eta Hiritartua bere gain hartzen dituen bitartean, Hiztegi Espezializatuak ez direla zuzenean Euskaltzaindiaren lana aitortzen du, "beste

¹¹ Informazio gehiago nahi duenak UZEI-EUSKALTERMera (1988) jo dezake.

edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik". Handik sei urtera jarrera bera azaldu zuen 1987an. Akademiari dagokion bezala, arau orokorrak eman ditu (*Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* 1986an, edo *-ari (-lari) atzizkiak* eta *-ari / -ario* 1995ean, terminologian ere kontuan hartzekoak direnak.. Terminologian murgildu dira, aldiz:

- HAEE/IVAP, 1981ean sortua. Orain arte egindako lanen artetik, aipatzekoak dira *Europako Ituneen Hiztegia. Vocabulario de los Tratados Europeos*, 8 hizkuntzatan argitaratua, eta Administrazioako oinarritzko testuen bilduma, euskaraz eta erdaraz argitaratzen duena, bai eta 1988an antolatutako Administrazioako hizkera eta terminologiazko Jardunaldiak ere.
- 1983an, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza sortu zen, administrazio munduko terminologiaren plangintzan zer egin garrantzitsua izan duena.
- Aipatzekoa da halaber Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuaren lana ere, lehen eta bigarren mailako hezkuntzan erabiltzen den terminologiaren plangintzan eta hedapenean. Leku berezia egingo nioke *Hezkuntza Administrazioako Hiztegia*-ri (1993).

Saio hauetatik kanpo geratu da mundu ez ofiziala, ekimen pribatuari dagokiona, nahiz azken urte hauetan enpresen mundua euskalduntzeko han eta hemen lehen ahaleginak azaldu (askotan Elhuyar izanik horren ardura hartzen duena). Merkataritza-munduan, Euskaltzaindiaren *Merkatalgo izendegia, kargu eta bilera-lekuena* (1984) hark, jarraipena izan du Eroskiren enkarguz UZEIk (1994) argitaraturiko *Banaketa eta Kontsumo Hiztegia. Janari-edariak* eta *Banaketa eta Kontsumoko Hiztegia II. Bazarra, ehunkiak, oinetakoak eta drogeria* (1997).

3. Gaurko egoera eta etorkizuneko beharrak

a. Unibertsitate mundua.— Euskal adarrak sortu eta indartu diren heinean, nabarmen ugalduta dira euskaraz ematen diren irakasgaiak eta testu-liburuak ere. Hala ere, liburuok askotan ez dira izaten irakasleek bere sortuak, itzulpen-etxe eta taldeekin eginikoak baino, beti ere irakasleren baten ardurapean. Hartara, UZEIk bere hiztegietan egindako proposamenak aztertu, eztabaidatu, eta osatu egiten dira. Baina eskertzekoa litzateke liburu bakoitzak bertan agertzen diren terminoen zerrenda balekar; egia da batzuetan agertzen direla, baina ez beti, nahiz azkenengoetan arreta berezia jarri den. Bigarren urratsa terminologia hori hedatzea izango litzateke, glosario laburren bidez, EUSKALTERMez baliatuz, unibertsitateak berariaz sor dezakeen terminologia-bankuaren bidez... Izan ere Villasantek (1956) azpimarratzen zuen bezala, kontsentsua eta hedapena funtsezkoak dira terminologian. Azkenik, kontuan izanik Cabrék (1992) dioen bezala, unibertsitateek izan behar luketela terminoen gaineko ikerkuntzan gune nagusiak, unibertsitateko irakasleok ahalegindu beharko ginateke terminologian oinarritzko prestakuntza izateak, gai hauek mintegietan eztabaidatzen¹²... Baina gaurkoz ez dugu unibertsitatean terminologian prestakuntza ematea helburu duen programarik, ez ikastarorik. UZEI eta HAEE/IVAP dira terminologoak dituzten bakarrak.

b. Irakaskuntza ez unibertsitarioan.— Irakaskuntza ez unibertsitarioan, terminologia finkatuz joan da apurka-apurka testu-liburuei esker. Oraindik ere Mendigurenek (1977) Euskaltzaindiari eskatzen zion bateratze-lana beharrezkoa izan arren, kontuak aurreratuago daudela esango nuke alor horretan. Bestalde, pentsatzekoa da termino hauetako asko eta asko, bereziki Lehen Hezkuntzakoak direnak, Euskara Batuko Hiztegiak

¹² Ikus X. Mendiguren (1997): "Terminologia eta traduktologia EHU-UPVn" *Senez* 17: 17-27

jasoko dituela, nahikoa oinarritzkoak baitira¹³, eta egon daitezkeen aukeren artean, irizpide orokorrak begien aurrean izanik, bakarra proposatuko dela. Alde honetatik benetan garrantzitsua gertatu da azken urteetako entziklopediagintza-lana, Elhuyarrekoek eta Lurrekoek egina.

c. Administrazio mundua.— HAEE/IVAPen lanaren ondoan, Foru Diputazioek eta udaletxe askok eta askok dituzten euskara zerbitzu eta itzultzaileen lana garrantzi handikoa da. Egia da, hala ere, itzultzaileen artean ez dagoela beti nahi besteko komunikaziorik, eta ez da harritzekoa izaten erdal termino batentzat euskaraz hiruzpalau ordain aurkitzea. Egoera honi aurre hartu nahirik, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak talde-lana bultzatu du, administrazio terminologia bateratzeko. Horrela egin dira errenta-aitorpenerako inprimakiak, eraikin publikoetako barne-errotulazioa, Nekazaritza Hiztegia, eta horrela lantzen ari dira orain ere Administrazio Hiztegia. Talde horietan UZEIko eta HAEE/IVAPeko kideak egon ohi dira, Foru Diputazioetako ordezkariak, EUDELEkoak, Nafarroa eta Iparraldekoak, eta Euskaltzaindikoak.

d. Beste eremu batzuk.— Orain arte aipatuez gain, hutsunerik nabarmenena komunikabideena da, nire ustez. Hor ere beharko litzateke telebista-irratietako ordezkarien eta prentsa idatziko ordezkarien arteko talde-lana, elkarren berri gehiago jakitea. Lehenbailehen bildu beharko lirateke darabiltzaten terminoak eta eztabaidaguneak sortu.

Amaitzeko, egiten ari garen urratsak handiak direla aitortu arren, utziezadazue oraindik ere urrats handiagoak egiteko eskatzen. Ez dugu oraindik ere plangintza orokorrik terminologian, eremu guztiak begiz joko dituenik; are gutxiago plangintza horren koordinazio eta jarraipena egiteko modurik, lortzen diren emaitzen ebaluaziorik. Eta hau guztia nahitaezkoa da, Cabrék (1992) azpimarratzen duen bezala, terminologiaren antolamendu oso baterako. Egia da badugula terminologia zentroa, UZEI, INFOTERMeko (Terminologia Informaziorako Nazioarteko Zentroa) eta TERMNETeko (Nazioarteko Terminologia Sarea) kide dela, eta badituela hitzarmenak sinatuak Deustuko Unibertsitatearekin, EHUrekin, Euskaltzaindiarekin, HAEE/IVAPekin eta zenbait herri-aginterekin, bai eta TERMCATEkin ere. Baina ez da zentro ofiziala eta batez ere ezin da izan, ez du izan behar, terminologia-sortzaile den gune bakarra. Eta alde honetatik, katalanek duten "Consell Supervisor" delakoaren antzekoa beharko genuke guk ere, han eta hemen sortzen diren terminoak aztertu eta azken onespina emango liekeena; hau da, orotariko hiztegirako Euskaltzaindiak duen erabakimen eta itzala izango lukeena. Beraz, Administrazio Terminologiaren gainean egindako Jardunaldietako proposamena, berrikitan A. Diaz de Lezanak¹⁴ ere jaso (1977) ere neure eginaz, benetan beharrezko ikusten dut Terminologia Batzordea sortzea (Terminologia Kontseilua, nahiago bada): administrazio, unibertsitate(eta)ko, UZEIko, HAEE/IVAPeko, kolegio profesionaletako... kideez osatua, auzi orokorretarako euskaltzainen gidaritzapean (euskaltzainen laguntzarekin mugatuko luke batek baino gehiagok), terminologian proposamen bateratu, kontsentsudun eta onartuak lortuko lituzkeen batzordea. Hauxe litzateke, nire iritziz, euskal terminologiaren plangintza eta normalkuntzarako biderik seguruena eta eraginkorrena. Eta, honekin batera, bide egokiak aurkitu beharko genituzke termino estandarizatuen hedapena segurtatzeko.

BIBLIOGRAFIA

¹³ Eguneroko bihurtu eta orotariko hiztegitik gertu dauden terminoez, Ikus Johnson eta Sager (1980): "Standardization of Terminology in a Model of Communication" *International Journal of Sociology of Language* 23: 81-104

¹⁴ Oso gomendagarria da A. Diaz de Lezana (1997): "Terminologi lanaren metodologia" *Senex* 17:29-38

- AGIRRE J., DIAZ de LEZANA A. (1991): *Europako Ituneen Hiztegia. Vocabulario de los Tratados Europeos...* Bilbao: Instituto Vasco de Administración Pública.
- AGIRRETXE A. (1963): "Gaurko izlariak eta euskera" *Euskera* VIII-IX, 443-449
- ALTONAGA K. (1994): "Teleskopioa, mikroskopioa eta txiki-ikuskina" *Berba* 11
- ALTUBE S. (1920a): "Erderatiko-itzak, itz-barijak eta aintxiña-itzak" *Euskera* 1919-1920, 44-54
- (1920b): "Euskaltzain berriak, bere sarrerako egunean, Bilbo'n lotazilaren 28an irakurritako lana" *Euskera* 1920-1921, II, 1, 3-49
- (1933): "La Vida del Euskera" *Euskera* XIV-IV, 299-397
- (1936): *Más sobre la Vida del Euskera. Barriro Euskeraren Bizitzari buruz.* *Euskera* XVII: 1-192
- AUGER, (1988): "La terminologie au Québec et à travers le monde". En *Actes du sixième colloque OLF-STQ de Terminologie (1985). L'ère nouvelle de la Terminologie.* Québec: Gouvernement du Québec.
- AZKARATE M. (1992): "Larramendiren hitz-eraketa" *Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena*, (arg. J.A. Lakarra). Andoain. 207-219.
- Revista *Berba*. UZEI-EUSKALTERM. Aldapeta 20. 2009 Donostia/San Sebastián.
- BARANDIARAN G. (1963): "Euskera'ren iztegia, nola litzaken" *Euskera* VIII-IX, 372-378
- CABRE, M.T. (1992): *La terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions.* Barcelona: Editorial Empúries.
- ENSUNZA, M. (1989): "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak" *Euskera* 34,2: 577-596
- EUSKALTZAINDIA (1992): "Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Euskaltzaindiaren gomendio-arauak", *Euskera* 37,2: 727-736
- (1959): "Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz" *Euskera* IV: 214-215
- (1982): Euskaltzaindiaren adierazpenak. Hiztegitzaz" *Euskera* XXVII,2: 271
- (1987): "Lexiko-berrikuntza eta bilketa-bana nola bidera" *Euskera* XXXII,2: 343-348
- HAEE/IVAP (1989): *Administrazioko Hizkera eta Terminologiaz Jardunaldiak.* Oñate: Instituto Vasco de Administración Pública.
- HIZTEGI BATUKO BATZORDEA (1994): "Hiztegi Batua osatzeko irizpideak" *Euskera* 39,2: 1093-1110
- INTXAUSTI, J. (1992): *Euskara, la lengua de los vascos.* Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- KRUTWIG F. (1982): "Kultur hitzen orthographia euskaraz" *Euskera* XXVII,2: 665-668
- LEVY, J. (1978): *The Syntax and Semantics of Complex Nominals.* New York / San Francisco / London: Academic Press.
- LOINAZ, M. (1995): "Adjektibo erreferentzialen erabilera" *Berba* 16
- MAURAS, J. (1987): "La place de l'enseignement de la terminologie dans l'aménagement linguistique du Québec" en BOULANGER, J.C., REGUIGUI, A. (ed.) *Table ronde sur l'enseignement de la terminologie à l'Université: état de la question.* Québec: GIRSTERM.
- MENDIGUREN X. (1976): "Irakaskintza liburuetakoko euskeraren desberdintasunak" *Euskera* XXI, 2: 210-213

- (1977): "Euskarazko neologismo eta terminologiaren inguruan" *Euskera* XXII,2: 97-99
- MITXELENA L. (1968): "Ortografia" *Euskera* XIII: 203-219
- OLAZIREGI I., BERASATEGI J.M., ZALBIDE M. (1993): *Hezkuntza Administrazioako Hiztegia. 5 Hizkuntz Prestakuntza*. Vitoria-Gasteiz: Euskara Zerbitzua. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- OSKILLASO (1963): "Batasunerako urhatsak, euskal-analphabetismua ta kultur-hiztegia" *Euskera* VIII-IX, 378-385
- PAGOLA, I. (1988): *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Tesis doctoral. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco.
- SARASOLA I. (1977): "Euskal hiztegi arauemaile entziklopedikoaren proiektua" *Euskera* XXII,2: 125-138
- URRESTARAZU A. (1963): "Euskeraren aldeko lan orokor baten egitaraua" *Euskera* VIII-IX, 401-408
- UZEI/EUSKALTERM (1988): "La terminología en el contexto de normalización de la lengua vasca". En *TermNet News* 22, 1988.
- VILLASANTE, L. (1956): "Gure eginberrak" *Euskera* 1956, I: 257-268
- (1959): "Bizitzatik urbil" *Euskera* IV: 101-113
- (1963): "Sebero Altube iztegi arazoetan maisu" *Euskera* VIII-IX, 293-313
- (1968): "Antziñako euskal hitzen formaz" *Euskera* XIII: 175-201
- (1970): *Hacia la lengua literaria común*. Serie "Luis Eleizalde" 1. Oñate: Editorial Franciscana Aránzazu.
- (1974): *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Serie "Luis Eleizalde" 3. Oñate: Editorial Franciscana Aránzazu.
- (1977): "Urtebikoaren plangintza (egoera - lanak - asmoak - helburuak)" *Euskera* XXII,2: 222-242
- ZALBIDE M. (1991): "Euskaltzaindia euskal hitz-althorren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea" *Euskera* XXXVI,2: 1097-1113
- ZATARAIN, A. (1968): "Euskerazko itz berriak" *Euskera* XIII: 163-173

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Euskal terminologiaren egoeraz

Euskal terminologiaren egoeraz hitz egiteko, ezinbesteko zaigu euskarak oro har bizi duen egoera kontuan hartzea. Izan ere, 1968an Euskaltzaindian Arantzazun egin zuen Biltzarretik aurrera, euskara batzeko egiten ari garen bidean, "araugintza" da nagusi. Arauak eman dira morfologian, arauak ematen ari gara Hiztegi Batuko zerrenda osatuz doan heinean. Aldi berean, hizkuntzaren inguruan sortzen diren zalantzetan ere batek baino gehiagok "araua" eskatzen dio Euskaltzaindiari. Nire iritziz, bi modutara markatzen du honek giroa: batetik eredu edo forma bakarra eskatzen du jendeak batasunerako, eta,

bestetik, forma horrek zein izan behar duen Euskaltzaindiak esan behar du. Euskaltzaindia da, beraz, batasun-prozesuan gidari, eta forma zuzenaren berme.

Terminologiari dagokionez, argi dago euskaldunok ez garela gehienetan terminologia-sortzaile. Bestek sortutako terminoa euskaraz nola eman erabakitzea izan ohi da gure zeregina; eta alde horretatik, nahitaezkoa da, ondoko hizkuntzekin alderatuta, euskarak dituen bi berezitasun behintzat oso kontuan izatea: izenondo erlazionalik eza, eta aurrizkien urritasuna. Bi berezitasun hauen aurrean zein jokabide hartu erabakitzeaz gain, oro har, hiztegi baturako egin den bezalaxe, terminologia-auzietan ere, irizpide orokorren beharrea gaudela esango nuke. Alde honetatik, maileguena da puntu nagusia: noiz hartu mailegua eta noiz sortu euskarak hitzak sortzeko dituen bideez baliatuz, euskal ordaina? Larramendiren eta gerra aurreko belaunaldiaren jarrera dugu batetik (euskararen bidetik jo, maileguak alde batera utziaz); maileguak, nazioartekoak direnean batez ere, onartzearen aldekoen jarrera bestetik. Hala ere, nazioarteko izatea zer den finkatu behar da: hiztegi baturako egin den bezala, frantsesez eta espainolez (agian ingelesez ere bai) erabiltzen den hitza mailega daiteke besterik gabe, ala urrunago begiratu behar dugu (alemana, daniera, hizkuntza eslaboak...) mailegua onartu aurretik? Galdera hauen erantzunetik etorriko da euskararen bi berezitasun horiei (izenondo erlazionalik ezari eta aurrizki urritasunari) eman beharreko erantzuna ere.

Azkenik, terminologiagile nor den ere aipatu beharrekoa da. Gerra aurretik, eta gerra ondorengo lehen urteetan ere, Euskaltzaindiari eskatzen zitzaion terminologia sortzea, nahiz euskaltzain batek baino gehiagok bere zalantzak azaldu lanbide hori Euskaltzaindiari zegokion ala ez. 1980 arte jarraitu zuen Euskaltzaindiak *Matematika Hiztegia*, *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia*, *Arkitektur Hiztegia*, etab. argitaratzen. Azken urteetan, 1981ean eta 1987an, terminologiagintza ez dagokiola Euskaltzaindiari adierazi du; gehienaz ere lexikologia-auzietan aholkulari-lana egingo du eta bide orokorrak markatu. Bide horiek markatzen jardun du Hiztegiagintza batzordeak, maileguak euskaratzeko arauak ematean, edo Lexiko Irizpideen Finkapenerako azpibatzerdeak, atzizki, aurrizki eta hitz elkartuak aztertu dituenen. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoa eratu aurretik, Elhuyar (1972an sortua) edo UZEI (1977an sortua) elkarteek lan handia egin zuten terminologian; ezin ahaztuzkoa da Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) ekarpena ere. Gero, euskara hizkuntza ofizial bihurtu zenetik, IVAP/HAEK, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak edo unibertsitateek (bereziki Euskal Herriko Unibertsitateak) lan handia egin dute terminologia garatzen. Gaur egun, UZEIk badu EUSKALTERM, datu--banku terminologikoa, eta INFOTERM eta TERMNETeko kide da. Egunetik egunera lan--harreman estuagoa dute UZEIk eta IVAP/HAEK, bakoitza bere alorrean benetako ahalegina egiten ari da, eta horren erakusgarri da nazioarteko kongresu hau bera.

Etorkizun hurbilerako beharren artean: lantaldeen arteko koordinazio handiagoa, eta Terminologia Batzorde baten sortzea, orotariko hiztegian Euskaltzaindiak duen itzal bera izango lukeena, azpimarratuko nituzke.

Algunas consideraciones sobre la situación de la terminología vasca

A la hora de analizar la situación de la terminología vasca, es imprescindible considerar la situación que vive el euskera en general. A decir verdad, desde el congreso que celebró la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en Aránzazu en 1968, la "normativización" ha sido el criterio dominante en lo que se refiere a la unificación del euskera. Se han dado normas en morfología, y estamos dando normas en la medida que se va completando el listado del Diccionario Unificado. Al mismo tiempo, son muchos los que solicitan a la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia que "normativice" con el fin de resolver las diferentes vacilaciones lingüísticas. En mi opinión, este hecho influye de dos maneras: por una parte, la gente exige una única forma o modelo de cara a la unificación, y, por otra parte, corresponde a Euskaltzaindia la elección de esa forma. En

consecuencia, Euskaltzaindia es quien guía el proceso de unificación y garantiza la forma correcta.

En lo que hace referencia a la terminología, está claro que los vascos no somos grandes generadores de terminología. Nuestra preocupación no suele ser otra que decidir el modo de denominar en euskera los términos generados por otros; y desde ese punto de vista, es fundamental tomar en cuenta al menos dos características que diferencian específicamente el euskera de los idiomas que le rodean: la carencia de adjetivos relacionales y la escasez de prefijos. A mi juicio, además de decidir la actitud que debemos tomar ante esas dos peculiaridades, estamos ante la obligación de utilizar criterios terminológicos generales, del mismo modo que se ha hecho con el léxico unificado. En ese sentido, el punto fundamental de debate bascula entorno a la adquisición de préstamos: ¿cuándo debemos aceptar un préstamo y cuándo debemos generar un nuevo término con los recursos propios del euskera? Por una parte, tenemos la postura de Larramendi y la generación de la preguerra (recurrir a los recursos del euskera, prescindiendo de los préstamos); por otra parte, existe otra tendencia, favorable a aceptar préstamos lingüísticos, sobre todo cuando son de carácter internacional. No obstante, habría que precisar qué entendemos por carácter internacional: al igual que se ha hecho para el léxico unificado, ¿son aceptables sin más los préstamos lingüísticos provenientes del francés y español (quizá también del inglés), o tenemos que tener una perspectiva más amplia (alemán, danés, lenguas eslavas...) antes de aceptar el préstamo? Del criterio con que afrontemos estas cuestiones vendrá la respuesta que hemos de dar a las dos especificidades del euskera (falta de adjetivos relacionales y escasez de prefijos).

Finalmente, hay que determinar quién tiene la competencia en materia terminológica. En la preguerra, y en los primeros años de posguerra, era la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia quien era requerida para que creara nuevos términos, a pesar de que más de un académico manifestó sus dudas sobre la idoneidad de que ese trabajo fuera llevado por Euskaltzaindia. Hasta el año 1980 la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia continuó publicando *Matematika Hiztegia* (Diccionario de Matemáticas), *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia* (Diccionario Escolar para niños hasta ocho años), *Arkitektur Hiztegia* (Diccionario de Arquitectura) etc. En los últimos años, en 1981 y 1987, Euskaltzaindia ha manifestado que la tarea terminológica no es asunto suyo; como mucho, asume la asesoría en asuntos lexicológicos y fijación de criterios generales, como precisamente ha venido haciendo hasta el presente la Comisión de Lexicografía, normativizando la adaptación de préstamos al euskera, o la Subcomisión para la fijación de criterios léxicos, estudiando los afijos, prefijos y palabras compuestas. Al mismo tiempo, antes de que se creara la Comunidad Autónoma Vasca, tanto Elhuyar (creada en 1972) como UZEI (creada en 1977) llevaron a cabo una importante labor en el campo de la terminología, así como tampoco se puede olvidar la aportación de la Universidad Vasca de Verano (UEU). Posteriormente, desde la oficialización del euskera, el IVAP/HAEE, el Servicio de Euskera del Departamento de Educación del Gobierno Vasco y las universidades (especialmente la Universidad del País Vasco) han desarrollado una gran tarea en el ámbito terminológico. Hoy en día, UZEI cuenta con un banco de datos terminológico denominado EUSKALTERM, y es miembro de INFOTERM y TERMNET. Las relaciones entre UZEI y el IVAP/HAEE son cada vez más estrechas, realizando ambas instituciones un auténtico esfuerzo, cada una en su ámbito, reflejo de lo cual es este congreso internacional que nos reúne.

Entre las necesidades que se vislumbran a corto plazo tendríamos que destacar una mayor coordinación entre los grupos de trabajo, y la creación de una Comisión de Terminología, que tendría funciones semejantes a las que desempeña la Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en el diccionario general vasco.

Quelques considerations sur la situation de la terminologie basque

Au moment d'analyser la situation de la terminologie basque, il est indispensable de considérer la situation vécue par l'euskera en général. A vrai dire, depuis le congrès organisé par l'Académie de la Langue Basque/Euskaltzaindia à Aranzazu en 1968, la "réglementation" a été le critère dominant en ce qui concerne l'unification de l'euskera. Des règles en morphologie ont été données, et nous sommes en train de donner des règles dans la mesure où la liste du Dictionnaire Unifié se complète. En même temps, nombreux sont ceux qui demandent à l'Académie de la Langue Basque/Euskaltzaindia de "réglementer" afin de résoudre les différentes hésitations linguistiques. A mon avis, ce fait influence de deux façons: d'une part, les gens exigent une forme ou un modèle unique vis-à-vis de l'unification, et, d'autre part, c'est à Euskaltzaindia que correspond le choix de cette forme. Par conséquent, c'est Euskaltzaindia qui guide le processus d'unification et qui garantit la forme correcte.

En ce qui concerne la terminologie, il est clair que nous, les basques, nous ne sommes pas de grands créateurs de terminologie. Généralement, notre souci n'est autre que celui de décider la façon de dénommer en euskera les termes créés par d'autres; et de ce point de vue, il est essentiel de tenir compte d'au moins deux caractéristiques qui différencient spécifiquement l'euskera des langues qui l'entourent: d'une part le manque d'adjectifs relatifs et de l'autre celui de préfixes. A mon avis, en plus de décider l'attitude à prendre face à ces deux particularités, nous nous trouvons face à l'obligation d'utiliser des critères terminologiques généraux, de la même façon que cela a été fait avec le lexique unifié. Dans ce sens, le point fondamental du débat bascule autour de l'acquisition d'emprunts: quand devons nous accepter un emprunt, et quand devons nous créer un nouveau terme avec les ressources propres de l'euskera? D'une part nous avons l'attitude de Larramendi et celle de la génération de l'avant-guerre (avoir recours aux ressources de l'euskera, tout en faisant abstraction des emprunts); d'autre part, il existe une autre tendance favorable à accepter des emprunts linguistiques, surtout lorsqu'il s'agit d'emprunts de caractère international. Néanmoins, il faudrait préciser ce que nous entendons par caractère international; comme il a été fait pour le lexique unifié, les emprunts linguistiques provenant du français et de l'espagnol (et peut être aussi de l'anglais) sont-ils acceptables, ou bien, devons-nous avoir une perspective plus ample (allemand, danois, langues slaves...) avant d'accepter l'emprunt? En fonction du critère avec lequel nous affronterons ces questions, viendra la réponse que nous devons donner aux deux spécificités de l'euskera (manque d'adjectifs relatifs et manque de préfixes).

Finalement, il faut déterminer à qui revient la compétence en matière terminologique. Pendant l'avant-guerre, et les premières années de l'après-guerre, c'était l'Académie de la Langue Basque/Euskaltzaindia qui était requise pour créer de nouveaux termes, bien que plus d'un académicien manifesta ses doutes sur la convenance du fait que ce soit Euskaltzaindia qui réalise ce travail. Jusqu'en l'an 1980 Euskaltzaindia a continué de publier *Matematika Hiztegia* (Dictionnaire des Mathématiques), *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia* (Dictionnaire Scolaire pour enfants jusqu'à l'âge de huit ans), *Arkitektur Hiztegia* (Dictionnaire d'Architecture), etc. Au cours des dernières années, en 1981 et en 1987, l'Académie de la Langue Basque/ Euskaltzaindia a manifesté que la tâche terminologique n'est pas de son affaire; au plus, elle assume l'assessorat dans les affaires lexicologiques et la fixation de critères généraux, comme précisément l'a fait jusqu'à maintenant la Commission de Lexicographie, en régularisant l'adaptation d'emprunts à l'euskera, ou la Sous-commission pour la fixation de critères lexiques, en étudiant les affixes, les préfixes et les mots composés. En même temps, avant que la Communauté Autonome Basque soit créée, aussi bien Elhuyar (créée en 1972) qu'UZEI (créée en 1977) menèrent à bien un travail important dans le champ de la terminologie, et nous ne pouvons pas non plus oublier l'apport de l'Université Basque d'Eté (UEU). Ultérieurement, depuis l'officialisation de l'euskera, l'IVAP/HAEE, le Service de l'Euskera du Département de l'Education du Gouvernement Basque ainsi que les universités (spécialement l'Université du Pays Basque) ont développé une grande tâche dans le domaine terminologique. De nos jours, UZEI compte sur une banque de données terminologique appelée EUSKALTERM, elle est membre d'INFOTERM et de TERMNET. Les relations entre UZEI et l'IVAP/HAEE sont

de plus en plus étroites, les deux institutions réalisent un effort authentique, chacune dans son domaine, et ce congrès international qui nous réunit en est le reflet.

Parmi les besoins qui s'entr'aperçoivent à court terme, nous devrions signaler une plus grande coordination entre les groupes de travail ainsi que la création d'une Commission de Terminologie, qui aurait des fonctions semblables à celles exercées par l'Académie de la Langue Basque/Euskaltzaindia dans le dictionnaire général basque.

A few remarks on the situation of Basque terminology

When the time comes to analysing the situation of Basque terminology, it is essential to assess the general situation of the Basque language. The main criterion related to the Basque language unification process has been the “regulation” approach established at the Congress held at the Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia in Aránzazu back in 1968. Morphology regulations have been incorporated and regulations are being released as the Unified Lexicon comes to a close. Likewise, many people have asked the Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia to “regulate” this particular area in order to overcome a number of linguistic hesitations. In my opinion, we are dealing here with a two-fold influence: firstly, a single model is being demanded for the unification process; secondly, Euskaltzaindia must choose an option. Consequently, Euskaltzaindia is to guide the unification process and guarantee correct actions.

As regards terminology, we Basque people are clearly not major terminology generators. Our main concern usually only focuses on describing the terms generated by others in Basque; from this perspective, it is essential to take into account two characteristics that difference Basque from other neighbouring languages, i.e., a lack of relational adjectives and a scarcity of prefixes. In my opinion, we must not only decide how to address these two peculiarities but also use general terminological terms, as has already been done with the unified lexicon. In this regard, the debate fundamentally focuses on acquiring loanwords: when should we accept a loanword and when should we generate a new term based on the resources that Basque provides? We have, on one hand, the approach used by Larramendi and the pre-war generation (i.e., resorting to Basque resources and relinquishing loanwords); on the other hand, there is another trend that favours the acceptance of linguistic loanwords, particularly when they feature an international character. We would have to explain, however, what it is we actually mean by the term “international character”: as already happens with the unified lexicon, are linguistic loanwords from French and Spanish (also perhaps from English) acceptable, or should we be open to further options (German, Danish, Slavic languages...) before accepting a loanword? The answer needed by Basque language specificities (lack of relational adjectives and scarcity of prefixes) will arise from how we address all these matters.

Finally, we must determine who is to take on responsibilities regarding terminological matters. During the pre-war period, and also for a few years after the war was over, the Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia was commissioned to create new terms, although a number of academics have voiced their doubts in relation to the suitability of this particular approach. Until 1980, the Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia carried on publishing the *Matematika Hiztegia* (Dictionary of Mathematics), *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia* (a dictionary for school children aged 8 or less), *Arkitektur Hiztegia* (Dictionary of Architecture), etc. In recent years, particularly in 1981 and 1987, officials from the Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia have stated that terminological work does not concern them at all; they are willing, however, to provide advice on lexicological issues and also set general criteria, as has been the case until now with regard to the Lexicography Commission, a body that has regulated the adaptation of loanwords used in Basque, or the Subcommission for lexicon criteria that has been looking into affixes, prefixes and compound words. Simultaneously, and prior to

the creation of the Basque Autonomous Community, both Elhuyar (set up in 1972) and UZEI (established in 1977) carried out outstanding work in the terminology area. We must not forget the major contributions made by the Basque Summer University (UEU). Subsequently, and since Basque became an officially recognised language, IVAP/HAAE, the Basque Language Service of the Department of Education of the Basque Government and several universities (especially the University of the Basque Country) have done some remarkable work in the field of terminology. UZEI nowadays features the EUSKALTERM terminological data-bank and is a member of INFOTERM and TERMNET. The relationship between UZEI and IVAP/HAAE has been strengthened considerably and both institutions are working extremely hard in their respective areas as proved by this International Congress.

With regard to short-time needs, it must be emphasised that there is far more co-ordination between task forces and that a Terminology Commission has been created, whose functions will be similar to those carried out in the general Basque dictionary by the Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia.